



historia

Erdi Aroa

Erdi Aroak utzi diguna ikusteko **Argiñetara** jo beharko dugu, eta bertan, **estelak eta 893. urte** aldera lehenengo kristauek utzitako **hilobiak** aztertu. 893. urtea, hilobietako batek duen latinezko inskripzioan irakur dezakezu. Estelak, aldiz, hilobiak baino zaharragoak dira, hau da, kristau aurreko garaikoak. Estela eta hilobi hauen jatorriari buruz asko idatzi da, eta aztertu ere aztertu dira erakusten dituzten arrianismoaren aurkako ikurrak, baina oraindik garaiko biztanleriaren edo kristautasuna zabaltzen hasi zen garaiko herria zelan bizi zen argi edo zehatz azaltzeko galdera asko erantzutez dago.

Kronologikoki joanda, jauzi handi bat emango dugu denboran 1053ko otsailaren 11ra joateko, **Etxabarriako San Agustingo monastegi** prerromanikoa sortu zen eguna, nahiz eta toponimia aztertuz gero aurretik beste eraikin bat zegoela esan liteke. Ondoren, XII. mendean monastegian aldaketak egingo dira eta aurrekoaren gainean eraikin erromaniko bat eraikiko dute, eta hau ere, ez da honela geratuko, lau mende beranduago, XVI. mendean eraikin erromanikoa egungo eliza gotikoan bihurtuko da eta. Eliza ederra benetan: barrualdean XVI. mendeko horma-margoekin edo freskoekin batera erretaula nagusia, platereskoa, Bizkaiko ederrenetarikoa bat bere estiloan, nabarmendu behar dugu; eta kanpoaldean, berriz, kanpandorre barroko dotorea gehi elizatik komentura sestra berean zuzeneko sarbide bitxia dugu.

1356ko ekainaren 27an **Elorrio Historian sartu zen**. Don Tello, Bizkaiko Jaunak, hiriaren sorrerarako (San Agustineko lurretan) pribilegioa eman zuen, gipuzkoarrak

historia

Edad Media

En lo que a la Edad Media se refiere, dentro del extenso territorio que actualmente pertenece a la villa y como patrimonio más antiguo que se conserva, debemos comenzar por mencionar **los sepulcros y estelas de Argiñeta**. Los primeros cristianos y fechados hacia el año 893, según inscripción latina conservada en una de las sepulturas; las segundas precristianas y por lo tanto aún anteriores en el tiempo. Mucho se ha escrito sobre su misterioso origen, sus símbolos antiarrianos y sus creadores, pero desde luego, centrándonos sobre todo en su originalidad, tienen todavía muchas preguntas a las que contestar e información que aportar, tanto sobre el poblamiento de aquella época como sobre la historia de la cristianización en el País Vasco.

Continuando cronológicamente y de gran relevancia por lo que supondrá desde el marco jurisdiccional, el 11 de febrero de 1053 nos encontramos con la fundación del entonces **monasterio prerrománico de San Agustín de Etxabarria**, si bien su toponimia podría indicar incluso la existencia de un edificio anterior. Con posterioridad, en el siglo XII, se levanta sobre él un edificio románico, y éste igualmente en pleno siglo XVI dejará paso a la actual iglesia gótica. En ella, interiormente, son de destacar los frescos o pinturas murales del XVI y el precioso retablo mayor -uno de los más valiosos de Bizkaia en su género- de estilo plateresco. Mientras que exteriormente, merecen especial atención su más que ilustre campanario barroco y el singular paso o acceso en altura de la iglesia al monasterio.

Y el 27 de junio de 1356 **Elorrio entra en la Historia**. Don Tello, Señor de Bizkaia, concede el privilegio para



① Argiñeta

② Argiñetako hilerria /
Necrópolis de Argiñeta

③ Teilería / Tejería



①



②



③



Jaurerrira sartu eta erasoak gauzatzea saihesteko asmoz, bando-gerrek Euskal Herria suminduran murgilduta zuten garaian. Hiria sortzeko arrazoiak biztanlearen defentsaren ingurukoak izan ziren batik bat, baina ez ditugu baztertu behar, agian, etorkizunera begirako arrazoi ekonomiko edo komertzialak ere, benetan halaxe izan baitzen. Debagoiena eta Debabarrenarekiko merkataritzako ibilbidea sustatzea zen helburua, eta bide hori XV., XVI. eta XVII. mendeetan gauzatu zen bete-betean.

Hiria, hasieran, hesiz inguratu zuten, eta geroago, harresiz. Harresien barruan kale paralelo bi zeuden: *Río eta Campo kaleak*, eta hauek zeharkatzen zituen hirugarren kale txiki bat ere bazen. Kale mutur bakoitzean ate bat zegoen, beraz, guztira sei ate, hauetatik, egun bi ikus ditzakezu. Don Tellok Elorrio sortu zuen urtetik 112 urtera, hau da, 1468. urtean lur hauek, beren historian bizi izandako, **gatazka gogorrena** ezagutu zuten, oinaztarren (Ibarra) eta ganboarren (Martzana) artean. Alde biak argi utzi zuten bat egitea ezinezkoa zela.

Aro Modernoa

Eta apurka-apurka Erdi Aroa atzean utziko dugu, Aro Modernora joateko: XVI., XVII. eta XVIII. mendeak. Mende hauek oso garrantzitsuak izango dira Elorrioren, hau baita urrezko garaia hiriarentzat. Santa Maria eliza, gaur Sortzez Garbiaren basilika, eraikiko dute -1459-1506-; eta errebalak ere harresietatik kanpo eraikiko dituzte, beraz, aldaketa-garaian gaude. Gizartea, XVI. mendean oihalgile apalak eta lantzagile trebeak zituenak, eta XVII. eta XVIII. mendeetan

su fundación (en terrenos de San Agustín de Etxabarria) con la intención de frenar los ataques y entradas de los guipuzcoanos hacia el Señorío, en un tiempo en el que las guerras entre parientes mayores sumían en la desesperación a todo el País Vasco. Las causas de su fundación se deben sin duda principalmente a razones defensivas y de poblamiento, pero tal vez no debamos de excluir tampoco la posibilidad de una causa económica o comercial de vista a futuro, como de hecho ocurrió. Se buscaba potenciar una ruta comercial con el Alto y Bajo Deba, vía que llegaría a cuajar de lleno en los siglos XV, XVI y XVII.

La villa, cercada en un principio y luego amurallada, estaba organizada en dos calles paralelas (la calle del Río y la calle del Campo) y una tercera más estrecha que las atravesaba, dando lugar así a seis portales de entrada. A pesar de todo, Elorrio no pudo escapar de las graves consecuencias de las **guerras de bandos** y, en el año 1468, sus murallas sufrieron la batalla más sangrienta de su historia, en la que los dos linajes más importantes del lugar, los Ibarra (oñacinos) y los Marzana (gamboinos), dejaron patente sus diferencias.

Edad Moderna

Pero pasemos a tiempos mejores, a esos siglos XVI, XVII y XVIII, que básicamente componen la Edad Moderna, en los que Elorrio conocerá su Edad de Oro. El comienzo de la construcción de la iglesia de Santa María -entre los años 1459 y 1506-, hoy día basilica de la Purísima Concepción, y la creación de los arrabales a extramuros, llevan consigo el cambio hacia una sociedad más dinámica y emprendedora. Una sociedad abierta al mundo, de humildes pañeros



④

manufaturatutako burdinarekin nazioarte mailan negozioak egiten zituzten merkataria, kanpora begira bizi da.

Hedapen-sasoi hau eta hirira bidalitako diruaren ondorio dira bertan eraikitako etxe eta monumentu ederrak, bertan gertatutakoaren testigu mutuak. Monumentu batzuk aipatzearren:

1.- **Sortzez Garbiaren eliza**, Bizkaiko handiena ez bakarrik bolumenari buruz ari garenean, baizik eta monumentalena ere duen erretaula barroko-rokokoari dagokionez. Bestalde, ezin aipatu barik utzi kanpandorra, ez dago beste honelakorik. 1672. urtearen inguruan amaitu zuten eraikuntza, eta gorputzei eta apaindurei dagokienez, 1568an Hernán Ruiz II.ak egindako Sevillako Giraldaekin antz handia du (antzinako minaretearen gainean erantsi errenazentista).

y famosos lanceros en el XVI y de grandes mercaderes internacionales de hierro manufacturado en el XVII y XVIII.

Y consecuencia de ese largo periodo de expansión y de las remesas de dinero que la villa recibió durante el mismo son los edificios y monumentos más prestigiosos que hoy alberga, testigos mudos de lo que aquí se vivió. Así, por ejemplo:

1.- **La iglesia de la Purísima Concepción**, la más grande de toda Bizkaia en lo que a volumen se refiere. Al igual que la más monumental, gracias a su impresionante retablo mayor barroco-rococó, realizado durante el siglo XVIII, y a su torre campanario. Ésta, levantada entre 1661-1672, es una copia, en cuanto a los cuerpos y los ornamentos se refiere, de la mismísima Giralda de Sevilla (añadido renacentista sobre el antiguo alminarete) realizada por Hernán Ruiz II en 1568.

① San Agustingo horma-margoak / Frescos de San Agustín

② Harresia / Muralla

③ Santa Anako gurutzea / Cruz de Santa Ana

④ Sortzez Garbiaren basilika / Basilica de la Purísima Concepción



②



③

2.- Beste alde batetik, hor ditugu baita ere XVI. mendeko **bideko gurutzak**, Euskal Herri osoan ez dago beste herririk hainbeste bideko gurutzekin. Kokapenari kasu eginez, zentzuzkoena izango litzateke hirigintza-funtzioa zutela pentsatzea, hiriaren garapenaren muga adierazteko eta hurbileko auzoetarako orientazioa errazteko, bidebanatzaile, alegia. Bidegurutzetan estrategikoki kokatuta daudela kontuan hartuta, horixe erakusten duela esan daiteke.

3.- Baditu **20 bat jauregi** inguru eta **68 armari** ere. Zerbaki hauekin, kasu honetan, Euskal Herria osoan jauregi eta armari gehien duen herria da.

4.- Eta amaitzeko XVIII. mendeko **Udaletxe** dotorea; XVII. mendearen amaieran eta aurretik zegoen erromesentzako aterpetxearen gainean eraikitako **Santa Anako komentua**; hainbat **baseliza**, auzoetatik sakabanatuak; eta **iturri publikoak**, Berriozabaletako iturri neoklasikoa nabarmenduz.

Garai honetan, baita ere, 1630. urtean, **Etxabarriako San Agustinek Elorriorekin bat egingo du**. Hiru mende eskasean (1356tik 1630era) San Agustin elizatea eta hiria aldi berean izan ziren, eta lehenengoko legeak bailara osoan aplikatzen ziren, harresi barruko hirian eta Elorrioko eratze-eskirituran adierazten den nekazari-gunean izan ezik. Hala ere, 1630ean San Agustin Elorriori atxiki zitzaion, eta gertaera hori zentzuzkoa da nolana ere, San Agustinen kokapena bere jurisdikzioak osatzen zuen espazio zirkularra artezteko egokiena ez zelako eta hiriarena, aldiz, bai. Bestela ere, kontuan hartuta Elorrioko Sortzez Garbiaren eliza eraiki zenetik, San Agustin arlo guztietan, eta bereziki erlijioari dagokionez (horrek dakarren guztiarekin) garrantzia galtzen ari zela hiriaren aldean.

2.- Los nueve **cruceros de término** (todos del siglo XVI) dispuestos estratégicamente en los cruces de caminos y orientados hacia las barriadas más cercanas. Auténticos organizadores urbanísticos y señales limitrofes de su tiempo. Elorrio es la villa vasca con mayor número de ellos.

3.- Sus **suntuosos palacios**, alrededor de una veintena, y sus **68 escudos heráldicos**. Datos que la vuelven a convertir, por dos veces, en la villa con mayor número de palacios y escudos de todo el País Vasco.

4.- Además del **Ayuntamiento**, notable edificio del XVIII; el **convento de Santa Ana**, edificado a fines del XVII sobre un albergue para peregrinos; un sinfín de **ermitas**, dispersas por sus barriadas; y sus **fuentes públicas**, entre las que cabe destacar la neoclásica de Berriozabaleta.

También en este periodo, exactamente en el año 1630, se produce **la fusión de la anteiglesia de San Agustín de Etxabarria a la villa de Elorrio**. Durante algo menos de tres siglos (1356-1630) coexisten la anteiglesia de San Agustín y la villa, aplicándose las leyes de la primera en todo el valle, excepto en la villa amurallada y el área rural indicada en la escritura fundacional de Elorrio. Sin embargo, en el año 1630 se produce la fusión de San Agustín a Elorrio, acontecimiento lógico si tenemos en cuenta que la ubicación de San Agustín no era la más apropiada para dirigir un espacio circular como el que constituía su jurisdicción, mientras el emplazamiento de la villa, sí; o, si consideramos la pérdida de importancia de San Agustín frente a la villa en todos los aspectos, pero más si cabe en lo religioso (con todo lo que esto conllevaba) desde que se construyese la iglesia de la Purísima Concepción de Elorrio.

① Urkizu (Tola) jauregia / Palacio Urkizu (Tola)

② Santa Anako komentua / Convento de Santa Ana

③ Gazetako Andra Mari baseliza / Ermita Andra Mari de Gazeta



①



②

Aro Garaikidea

Eta hara non, ia konturatu barik XIX. mendera heldu garen. XIX. mendean XX. mendean hasierara arte, nekazaritzatik bizi izan den herrira, turismoa helduko da eta arrakasta handia lortuko du balnearioei esker. Elorriok ospe handiko **bainuetxe bi** izan zituen eta uda garaian penintsula osotik etortzen ziren bisitariak. Bainuetxeak desagertu zirenean, 1907. urtea gutxi gora-behera, 1936. urtera bitartean Elorrio udarako eta atsedenerako lekua zen Bilbo inguruko familia ahaltsuentzat.

Beraz, argi dago Elorriok ere, bereziki XIX. mendean azkeneko laurdenean, berari zegokion "Belle Epoque" bitxia eta originala bizi izan zuela. Urtez urte, ekainaren 1etik irailaren 30era (bainu-sasoi ofiziala), erresumako edozein tokitatik goi klaseko ehunka bainu-hartzaile ekartzen zituzten diligentsiaz betetzen zen Elorrio. Benetako diru-iturria zen eta orduko nekazaritza-ekonomiari gehitzen zitzaion.

Ondoren, Gerra Zibila hasiko da eta honekin joango dira bareko urteak. Gerra urteen ostean Elorriok **industria** sartuko da, baina industrian ere ezberdina izango da, inizatiba pribatua eta sortutako enpresa txikiak eta kooperatibak ere gipuzkoar

Edad Contemporánea

Así llegamos al siglo XIX, durante el cual y hasta comienzos del siglo XX, curiosamente Elorrio, una villa por entonces básicamente agrícola, era ya un núcleo turístico de renombre. Primeramente hasta 1907, más o menos, gracias a sus dos magníficos y reconocidos **balnearios de aguas termales o medicinales** que atraían a gentes de todo el reino; y después, desaparecidos éstos, hasta 1936 como atractivo centro veraniego de descanso para las familias más acomodadas de la zona de Bilbao.

Con todo, es más que evidente que Elorrio, sobre todo en el último cuarto del XIX, conoció su particular, singular y original "Belle Epoque". Año tras año entre el 1 de junio y el 30 de septiembre, temporada oficial de baños, Elorrio se llenaba de diligencias que traían consigo a cientos de bañistas de clase alta desde cualquier lugar del reino. Una verdadera fuente de ingresos que se añadía a su entonces precaria economía agraria.

Posteriormente, la Guerra Civil trae consigo el fin de los años tranquilos. Habrá que esperar al Elorrio de posguerra para contemplar ahora, como no podía ser de otra manera, un

eredutik hurrago egongo direlako bizkaitar eredutik baino. Urte hauetan Elorriok biztanleriak gora egingo du eta 1950. urtean zituen 3.500 biztanleak 1981. urtean 8.000 izango dira.

Eta honekin amaitzeko azken hamarkadetan Elorriok aurrerapen handia egin duela jakin behar duzu, batez ere zerbitzuen edo hirugarren sektorean. Gainera, turistiko ikuspuntutik aukera handiko hiria da, eta horren adibidea da 1964. urteko **Monumentu Historiko-Artistiko** izendapena, Bizkaian lehena. Elorrio, eta elorriarrak, ikusi dugun moduan, kanpora begira daude, eta mendi artean -Oiz, Intxorta, Udalaiz, Anboto,...- egotea ez da horretarako inoiz oztopo izan. Elorriok jakin daki bertaratzen dena ez dela etorri den moduan itzuliko.

Jaiak eta tradizioak

Elorrio herri bizia da, dinamikoa eta modernoa, eta, aldi berean, bertako tradizioei eta herri-kulturari eusten jakin du. Gaur egun, besteak beste, jairik deigarri eta adierazgarrienak honako hauek dira: errebonbilloak, urriaren lehenengo igandean; Ferixa Nausikoak edo herriko jaiak, iraileko lehenengo igandean egiten den nekazaritza eta abeltzaintza feriarekin hasten direnak; eta Musikaire, bereziki musikari ematen zaion nazioarteko jaialdia, 1998. urteaz geroztik ekain eta uztailen ospatzen dena.

Magjaz eta kondairaz kutsaturiko ahozko tradizio zaharrenaren arabera, **errebonbilloen jaiak** gertaera bitxiaren oroitzapena du jatorri. 1571n Amandarro anaiak Lepantoko gerran borrokatu ondoren bueltan zetozen, eta hirian sartzen ari zirela Arrosarioko Amaren omenezko prozesioa egiten ari zirenez, berriro ere etxera itzuli zirela eskertzeko haren

Elorrio que se suma al carro de la **industrialización**, pero hasta en esto peculiar frente al resto de Bizkaia ya que su iniciativa privada y sus pequeñas empresas atomizadas y cooperativistas fueron y son más afines al modelo guipuzcoano. Elorrio en este momento fue capaz de hacer frente a una inmigración increíble, proveniente de casi todas las Comunidades Autónomas peninsulares y causa principal del ascenso de su población de 3.500 habitantes en 1950 a 8.000 en 1981.

En las últimas décadas Elorrio ha avanzado mucho en lo que al sector terciario o servicios se refiere, pero es una villa con grandes posibilidades aún por explotar dentro del apartado turístico, de hecho no es ninguna casualidad que ya en 1964 fuera declarado **Conjunto Monumental Histórico-Artístico**, el primero de toda Bizkaia. Elorrio, al igual que sus gentes, está y siempre ha estado, aquí lo hemos podido ver, abierto al exterior, a pesar de encontrarse en un verde valle entre los suaves montes Oiz e Intxorta y las calizas cumbres del Anboto y el Udalaiz. Juega con la ventaja de saber que lo que ofrece no va a dejar indiferente al visitante, ni le va a defraudar.

Fiestas y tradiciones

Elorrio es un pueblo vivo, dinámico y moderno que, a su vez, ha sabido mantener sus tradiciones y su cultura popular. En la actualidad, y entre otros, los festejos más llamativos y representativos de la villa son los siguientes: los errebonbillos, que se celebra todos los años el primer domingo de octubre; las Ferixa Nausikoak o fiestas del municipio, en septiembre, con la feria agrícola y ganadera como evento estrella el primer domingo del mes; y Musikaire, festival internacional, principalmente de música, que se celebra desde 1998 entre los meses de junio y julio.

Según la tradición oral más antigua, unida a la magia y a la leyenda, **la fiesta de los errebonbillos** tiene su origen en el recuerdo de un hecho, cuando menos, curioso. Aquél que recuerda como en el año 1571 los hermanos Amandarro, volviendo de haber servido en la guerra de Lepanto y coincidiendo su entrada en la villa con la procesión de la

① Berriozabaletako iturria / Fuente de Berriozabaleta

② Gargola / Gárgola



①



omenez desarratu zituzten arkabuzak. Hori, dena dela, jatorri erromantikoa baino ez da, errealitateari gehien hurbiltzen zaion jatorria, ordea, alardeen antzinako tradizioan bilatu behar dugu. Alardeak urtero egiten ziren, eta haien xedea izaten zen gerta zitekeen gerraren aurrean zenbat gizon eta zenbat arma zeuden erabilgarri ikustea. Izan ere, une haietan gerrak (inperio turkiarraren aurka, Herbehereen aurka, Alemaniako estatu protestanteen aurka, Frantzia edo Ingalaterraren aurka) ohiko kontua ziren.

Ferixa Nausikoei dagokienez, horien jatorriaren eta izenaren zergatiaren berri jasotzeko, XVIII. mendera jo behar dugu, 1751. urtera hain zuzen; urte hartan egin baitzen Elorrión lehenengoz feria bat sei egunez (abuztuaren 27tik irailaren 1era, biak barne). Urtebete geroago, 1752an, berriro egin zen feria, baina urte horretan, irailaren 1aren osteko igandea ere barne hartuz.

Beste alde batetik, **Musikairek** 1998an ekin zion bideari, eta aurten XII. edizioa izango du. Nazioarteko jaialdia da, ez du egikera artistiko zehatzik (musika-taldeak, kantautoreak, koruak, dantzak, antzerkia, etab.) baina ezaugarri bat badu: auditorio gisa Elorrioko ondare aberatsa erabiltzen du, xarma eta misterio handiko aire zabaleko guneak, eta horrela, ikuskizuna, artea eta zentzumenak nahastea eta bikoitzea lortzen du. Esperientziak merezi du.

Eta ezin dugu bukatu atal hau **San Balentin Berrio-Otxoaren** jaia aipatu barik, elorriar ospetsu eta Bizkaiko zaindaria honen oroimenez urtero uztailearen 4an ospatzen dena

Hemen gaituzu, zure zain.

Igor Basterretxea Kerexeta

②



Virgen del Rosario, dispararon sus arcabuces al aire como muestra de gratitud por hallarse nuevamente en la villa. Esto, sin embargo no deja de ser un origen romántico; lo más cercano a la realidad es buscar su origen en la antigua tradición de los alardes. Alardes anuales, cuya función no era otra que realizar un repaso o inventario de los hombres y armas disponibles ante cualquier posible guerra, en un momento además en el que éstas (contra el imperio turco, los Países Bajos, los estados protestantes alemanes, Francia o Inglaterra) estaban a la orden del día.

En cuanto a las **Ferixa Nausikoak**, para conocer su origen y la razón de su nombre debemos remontarnos al siglo XVIII, concretamente a 1751, año en el que se celebra en la villa de Elorrio por primera vez durante seis días (desde el 27 de agosto al 1 de septiembre, uno y otro incluidos) una feria. Un año después, en 1752, se repite la feria, ahora haciéndose extensible también al domingo posterior al 1 de septiembre.

Por su parte **Musikaire** comenzó su andadura en el año 1998, de hecho este año celebrará su XIIª edición. Se trata de un festival internacional sin un estilo artístico definido (grupos musicales, cantautores, coros, danzas, teatro, etc.) que posee la originalidad de utilizar el rico patrimonio elorriano y sus lugares al aire libre con más encanto y misterio como inusitados auditorios, consiguiendo que el espectáculo, el arte y los sentidos se mezclen y se multipliquen. La experiencia merece la pena.

Y no podemos terminar este apartado sin mencionar la festividad de **San Valentin de Berrio-Otxoa**, hijo ilustre de la villa y copatrón de Bizkaia, que tiene lugar anualmente el día 4 de julio.

Acércate, Elorrio y su historia te están esperando.

Igor Basterretxea Kerexeta

③



① Errebonbilloak / Errebonbillos

② Ferixa Nausikoak

③ Sortzez Garbiaren erretaula / Retablo de la Basílica